
2.

**METODOLOGI OHARRAK.
DEFINIZIOAK ETA GALDESORTAK
NOTAS METODOLÓGICAS.
DEFINICIONES Y CUESTIONARIOS**

2.1 Universo poblacional, espacial y ámbito temporal

La fecha y hora de referencia general para ambas operaciones se fijó a las cero horas del día 1 de mayo de 1996. Además de esta fecha, existen otras específicas para preguntas concretas. Así, para la relación con la actividad económica o el lugar de trabajo, fue la semana del 28 de abril al 4 de mayo; para los cambios de residencia en el padrón se fijó el 31 de diciembre de 1995, mientras que en la Estadística, para esos cambios, la referencia temporal abarca toda la vida de la persona, al igual que la fecundidad.

La inscripción en el padrón, así como en la Estadística de Población y Viviendas, afectaba a todas las personas que, con independencia de su nacionalidad, residían habitualmente en una vivienda, familiar o colectiva, de alguno de los 250 municipios de la C.A. de Euskadi. La inscripción se debía hacer, tanto si se encontraban en el municipio –residentes presentes–, como si se hallaban temporalmente fuera de él –residentes ausentes–, en la fecha de referencia. En el cuestionario padronal, al igual que en el de 1991, se solicitaba un resumen numérico por sexo de los transeúntes en la vivienda –personas que teniendo fijada su residencia en otro municipio, en la fecha de referencia estaban en alguno de la C.A. de Euskadi–. Las personas que residían en más de un municipio, debían empadronarse en el que estuvieran durante más tiempo durante el año.

Se debían incluir todas las personas que estuvieran vivas a las cero horas del uno de mayo de 1996. Esto significa que se debían haber empadronado los nacidos antes de esa fecha, aunque todavía no se hubiese realizado su inscripción en el Registro Civil. A pesar de que el proceso de recogida de información se suele demorar en más de un mes en relación a la fecha de referencia, no se debieron incluir los nacidos a partir de esa fecha. También debían incluirse todas las personas que estando vivas a las cero horas del 1 de mayo, fallecieron posteriormente.

2.1 Biztanleri eta lurralde-unibertsoa, eta denbora-eremua

Bi eragiketei dagokienez, 1996ko maiatzaren 1eko zero orduetan ezarri zen erreferentzia orokorreko data eta ordua. Data horretaz gain, badaude beste data berariazko batzuk ere, galdera konkretu batzuei buruz. Izan ere, jarduera ekonomikoarekiko erlazioari edo laneko udalerriari buruz, apirilaren 28tik maiatzaren 4rako astea izan zen; egoitza-aldaketei buruz, erroldan, 1995eko abenduaren 31 ezarri zen; biztanleri estatistikan, berriz, aldaketa horiei buruz, pertsonaren bizitza osoa besarkatzen du denbora-erreferentziak, ugalkortasunak bezala.

Biztanleen erroldan zein Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikan, Euskal AEko 250 udalerrietako etxebizitzaren batean (etxebizitza familiar edo kolektiboren batean) bizi ohi diren pertsona guztiek erroldatu behar zuten, euren nazionalitatea alde batera utzita. Erreferentzia-datan udalerrian zeudenek –bertan dauden egoiliarrek– zein aldi baterako kanpoan zeudenek –kanpoan dauden egoiliarrek– erroldatu behar zuten. Erroldaren galdesortan, 1991koan bezala, etxebizitzan zeuden iragaitzazkoen –egoitza beste udalerrri batean izanik, erreferentzia-datan Euskal AEko udalerriren batean zeudenen– sexukako zenbakizko laburpen bat ere eskatzen zen. Udalerrri batean baino gehiagotan bizi zirenek urtean denbora luzeena igarotzen zutenean erroldatu behar zuten.

1996ko maiatzaren 1eko zero orduetan bizirik zeuden pertsona guztiak sartu behar ziren erroldan. Horrek esan nahi du data horren aurretik jaiotakoak erroldatuta egon behar zutela, nahiz eta artean ez egon erroldatuta erregistro zibilean. Informazio-bilketaren prozesua hilabete batetik gora luzatu ohi da, erreferentzia-dataren aldean; hala ere, data horretatik aurrera jaiotakoak ez ziren bide sartu erroldan. Maiatzaren 1eko zero orduetan bizirik egonik, ondoren hil ziren pertsona guztiak ere erroldan sartu behar ziren.

Además de la unidad común de ambas operaciones –el individuo–, las viviendas concebidas para ser habitadas por personas (familiares o colectivas, ya estuviesen habitadas o vacías en el momento de la recogida de información), junto con las familias, también se consideraron unidades básicas de recogida y análisis.

2.2 Diseño, recogida y trabajos censales

A finales del año 1993 Eustat pone en marcha el proyecto de la Estadística de Población y Viviendas 1996, teniendo para enero de 1994 un borrador de anteproyecto que a lo largo de ese año y principios del siguiente, por una parte se va consensuando con los organismos más interesados –Ayuntamientos y Diputaciones sobre todo–, y por otra, se va completando y concretando técnicamente.

Además de contemplar los tradicionales 'Trabajos Preliminares', y que básicamente vienen a ser actualizaciones de seccionado, callejeros, entidades y núcleos de población, cartografía, etc., Eustat planteó la realización de un prediretorio de viviendas a realizar en el año 1995. Varios y fundamentales fueron sus objetivos:

- Construir un directorio de viviendas de cara a las labores de campo en la recogida del padrón y de la Estadística, y que, posteriormente a esa fase, permaneciese como directorio definitivo.
- Definir una clave identificadora de la vivienda, con vocación de permanencia. Se creó el IDEV, número que a partir del prediretorio, debía ir incluido en todos los ficheros de intercomunicación entre Eustat y entidades locales.
- Conseguir un mayor grado de cobertura y calidad en las operaciones de 1996.
- Facilitar el resto de fases de tratamientos censales y/o padronales posteriores a la recogida.

Se diseñaron tres modelos de cuestionarios para la recogida padronal, con el objetivo de que en la C.A. de Euskadi existiese un modelo homogéneo, y dos para la Estadística, dirigidos unos a viviendas familiares y otros a colectivos, así como cuadernos de recorrido y otro material auxiliar. Aparece una reproducción de los cuestionarios utilizados al final del capítulo.

No obstante, a diferencia de las operaciones censales o padronales realizadas hasta la de 1996, se introdujo una novedad casi revolucionaria: la preimpresión de parte de la información de las viviendas y de las personas en los cuestionarios.

En línea de lo que se viene realizando en los países que disponen de registros de población, y con las experiencias de algún importante municipio (Bilbao 1975 y Madrid

Bi eragitetako unitate erkideaz gain (gizabanakoaz gain), pertsonak bertan bizitzeko etxebizitzak ere (famiarrak zein kolektiboak, informazio-bilketa egin zenean, okupatuta edo hutsik zeudenak), familiez gain, bilketako eta azterketako oinarriko unitatetzat jotzen dira.

2.2 Taxuketa, bilketa eta zentsu-lanak

1993 urtearen amaieran, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika 1996 proiektua jarri genuen abian. 1994ko urtarrilerako, aurreproiektuaren zirriborro bat genuen. Urte horretan zehar eta hurrengoaren hasieran, alde batetik, erakunde interesatuenekin –udalekin eta aldundiekin, batez ere– adostu genuen, eta bestetik, teknikoki osatuz eta gauzatuz joan ginen.

Hasteko, sekzioak, kale-izenak, biztanleri entitateak, kartografia, etab. eguneratu genituen. Ohiko "atariko lan" horietaz gain, Eustatek etxebizitzen aurregidazerrenda bat osatzea erabaki zuen. Lan hori 1995ean egin genuen, eta oinarriko honako helburu hauek izan zituen:

- Etxebizitzen gidazerrenda bat osatzea, erroldaren eta estatistikaren bilketarako landa-lanetan erabiltzeko, eta fase hori amaitutakoan, behin-betiko gidazerrenda gisa irauarazteko.
- Etxebizitzen identifikazio-gako bat zehaztea, eta gero-rako irauaraztea. IDEV delako sortu genuen: zenbaki horrek, aurregidazerrendatik hasita, Eustaten eta toki-erakundeen arteko komunikazio-fitxategi guztietan sartuta joan behar zuen.
- 1996ko eragiketetan, estaldura- eta kalitate-maila handiagoa lortzea.
- Zentsu- edo errolda-prozesamenduko gainerako faseak (bilketa ondorengo faseak) erraztea.

Errolda-bilketarako, hiru galdesorta-eredu taxutu genituen, Euskal AEn eredu homogéneo bat egon zedin; estatistikarako, berriz, bi galdesorta (bata etxebizitza familiarretarako, eta besteak, kolektiboetarako), bai eta ibilbide-koadernoak eta bestelako laguntza-materiala ere. Kapituluaren amaieran, erabili genituen galdesorten kopia bat agertzen da.

Hala ere, 1996a arte egindako zentsu- edo errolda-eragiketetan ez bezala, berritasun ia iraultzaile bat sartu genuen: etxebizitzei eta pertsoneri buruzko informazioaren zati bat galdesortetan aurreinprimatzea.

Biztanleri erregistroak dituzten herrialdeetan egiten ari direnari jarraiki, eta udalerrri garrantzitsu batzuetako esperientziekin (Bilbao 1975, eta Madril 1991), berrikuspen-

1991), se planteó técnicamente una operación de revisión, más que una de renovación. De forma resumida diremos que el proyecto suponía que la mayoría de los padrones municipales (en la mayoría de los municipios grandes la hipótesis era suficientemente veraz) tenían una calidad aceptable, al realizar las gestiones padronales con una periodicidad y corrección suficiente.

Se enviaron los ficheros del prediretorio a cada municipio o diputación que gestionaba padrones a fin de que incorporasen las variaciones detectadas en la operación de campo citada, y se les requirieron los padrones a 31 de diciembre de 1995 (llamados ficheros de prepadrón), para, una vez validados (y eliminadas las deficiencias estructurales detectadas), poder construir los ficheros de impresión.

Evidentemente, se diseñaron todos los cuestionarios para que se pudiera preimprimir la información padronal (incluida la dirección postal) y pudieran ser introducidos en un sobre cerrado, que era como llegaban a las viviendas. Los cuestionarios, además de esa información impresa, ofrecían espacios para corregirla, en el caso de estar mal o en el de no aparecer.

Un equipo de 2.265 personas se puso en marcha a comienzos de mayo de 1996 para distribuir, recoger y controlar los más de 825.000 cuestionarios correspondientes al mismo número de viviendas –vacías u ocupadas– detectadas en los padrones o en el prediretorio realizado por Eustat; 1.640 fueron agentes censales, 233 encargados de grupo, 141 inspectores (102 de Eustat y 39 del I.N.E.) y 251 asesores locales.

El 96,3% de los cuestionarios preimpresos llegaron a su destino y fueron recogidos sin mayores problemas, en un 0,5% de la viviendas fue preciso uno preimpreso y otro o más no preimpreso, en un 1,3% de los casos a la vivienda o toda la familia hubo que darles de alta (11.000 cuestionarios), y no llegaron a su destino un 1,9% de los cuestionarios preimpresos (15.000 aproximadamente), según datos extraídos de la Encuesta de Evaluación de Respuesta, realizada después de cerrar la fase de recogida mediante una muestra.

De la operación de campo, y en contra de la opinión extendida de que sólo se realiza un trabajo de distribución y recogida de cuestionarios en este tipo de macrooperaciones, podemos decir que, según la encuesta arriba citada, en uno de cada cuatro cuestionarios se apreciaron correcciones en alguna de sus preguntas, en el mayor de los casos imputables a los agentes o inspectores padronales (las correcciones aparecían realizadas con otro tipo de letra y/o color de bolígrafo); un 4% de los cuestionarios aparecieron cumplimentados totalmente por el agente o inspector padronal (unos 34.000).

-eragiketa bat planteatu genuen, ezen ez berriztapen-lan bat. Laburbilduz esango dugu proiektu horrek honako hau suposatzen zuela: udal-errola gehienek (udalerrri handi gehienetan, hipotesi hori nahiko egiazkoa zen) kalitate onargarria zutela, errolda-kudeaketak nahikoa aldizkakotasunez eta zuzentasunez egiten baitziren.

Aurregidazerrendaren fitxategiak errolda-kudeaketak egiten zituen udalerrri edo aldundi bakoitzera bidali genituen, aipatutako landa-eragiketan antzemandako aldaketak erants zitzen, eta 1995eko abenduaren 31n eguneratutako erroldak galdatu genizkien (aurreerroldako fitxategiak direlakoak); behin balidatu gero (eta antzemandako egiturazko akatsak ezabatuz gero), inprimatze-fitxategiak osatu ahal izan genituen.

Galdesorta guztiak, jakina, erroldako informazioa (posta-helbidea barne) aurreinprimatu eta kartazal itxi batean sartu ahal izateko moduan taxutu genituen. Galdesortak horrela iritsi ziren etxebizitzetara, eta inprimatutako informazio horretaz gain, datu horiek zuzentzeko tartek ere eskaintzen zituzten, gaizki bazeuden edo agertzen ez baziren.

1996ko maiatzean, 2.265 laguneko talde batek lanari ekin zion, erroldetan edo Eustatek egindako aurregidazerrendan antzemandako 825.000 etxebizitzari (hutsei edo okupatuei) zegozkion beste hainbat galdesorta banatzeko, biltzeko eta kontrolatzeko; 1.640 zentsu-agentek ziren; 233 talde-arduradunak, 141 ikuskatzaileak (102 Eustatekoak eta 29 INEkoak), eta 251, toki-aholkulariak.

Aurreinprimatutako galdesorten %96,3 zegozkien helbideetara iritsi ziren, eta arazorik gabe jaso ziren; etxebizitzetan %0,5ean, galdesorta aurreinprimatu bat eta beste galdesorta ez-aurreinprimatu bat; kasuen %1,3an, etxebizitzari edo familia osoari alta eman behar izan genien (11.000 galdesorta), eta galdesorta aurreinprimatuen %1,9 ez ziren helbidera iritsi (15.000 gutxi gorabehera), Erantzuna Balioesteko Inkestaren arabera. Inkesta hori bilketa-fasea amaitutakoan egin zen, laginketa bidez.

Iritzi zabaldua da ezen horrelako makroeragiketan galdesortak banatu eta bildu baino ez dela egiten; iritzi horren kontra, landa-eragiketari buruz esan dezakegu, arestian aipatutako inkestaren arabera, lau galdesortatik, lautan zuzenketak agertzen direla galderaren batean. Kasurik gehienetan, errolda-agenteei edo ikuskatzaileei egotzi behar zaizkie zuzenketa horiek (zuzenketak beste letra-tipo batez edo boligrafo-kolorez markatuta agertzen dira); galdesorten %4 osorik errolda-agentek edo ikuskatzaileak beteta agertu ziren (34.000 inguru).

A la vez que se recogían los cuestionarios, se iba actualizando, en cuanto a dirección postal, situación de la vivienda y de las personas, un fichero –llamado de campo– con esa información extraída de lo que llamamos prepadrón (que a su vez sirvió para construir los ficheros de preimpresión). El objeto era controlar especialmente las modificaciones y altas de direcciones postales, así como cualquier cambio en campos relacionados con el espacio (secciones, entidades de población, etc) por un lado, el detectar y validar las modificaciones de situación de empadronamiento de las personas (sobre todo de las altas, ya que exigían un mayor esfuerzo de tratamiento) por otro, además de servir de fuente para obtener cifras provisionales.

Una vez cerrados los trabajos de recogida, hojas padronales y cuestionarios censales se separan y siguen caminos diferentes: los padrones pasan a ser procesados por los propios Ayuntamientos o por las Diputaciones en su caso, que mayoritariamente proceden a actualizar sus ficheros padronales anteriores a la renovación con la nueva información, y los cuestionarios estadísticos pasan a grabación. Esta operación se realizaba, también, bajo el esquema de la actualización o revisión: se construyeron unos ficheros –llamados de pregrabación– compuestos por parte de la información de los ficheros de prepadrón y por parte de la de los ficheros de campo (básicamente altas), y contra ellos se grabó la información recogida.

En grabación, además de las tradicionales tareas de validación y control de errores de estructura (de identificación, diferencias entre cuestionarios y registros, saltos de número de hoja, duplicados de viviendas y personas, negativas, etc.), como novedad se introdujo una fase de corrección ortográfica de literales, para lo que se facilitaba a las empresas grabadoras unos diccionarios de partida y una metodología de corrección. Se decidió añadir esta tarea al haber comprobado en la grabación y codificación automática de 1991, que un porcentaje significativamente alto de las variantes obtenidas procedían de modificaciones erróneas por digitación o por simple escritura de un mismo literal.

Posteriormente, se procedió a ejecutar las operaciones de depuración (volviendo a insistir, al igual que en 1991, en las correcciones automáticas y manuales de errores familiares), codificación automática de literales, ajuste a la población oficial e imputación. Los literales de actividad y profesión se codificaron con las clasificaciones antiguas (C.N.O.-79 y C.N.A.E.-74) y con las nuevas (C.N.O.-94 y C.N.A.E.-92), a fin de poder mantener las series anteriores y tener una herramienta de validación o verificación adicional para las clasificaciones nuevas.

En julio de 1998, con la salida a Internet con las principales tablas, y en el otoño de ese año con la edición en libros EXCEL de las 6 publicaciones tradicionales, se cerró la primera fase de difusión.

Galdesortak biltzearekin batera, aurrerolda delakotik ateratako informazioa (posta-helbidea, etxebizitzaren eta pertsonen egoera) biltzen zuen fitxategia eguneratuz joan ginen. Informazio hori, gainera, aurreinprimatzeko fitxategiak osatzeko erabili genuen. Helburua, alde batetik, batez ere posta-helbideetako aldaketak eta altak kontrolatzea zen, bai eta lurraldearekin lotutako eremuetan (sekzioak, biztanleri entitateak, etab.) zeuden aldaketak kontrolatzea ere. Eta bestetik, pertsonen erroldatze-egoeraren aldaketak antzematea eta balidatzea (batez ere alten aldaketak, zeren prozesatze-ahalegin handiago eskatzen baitzuten); gainera, behin-behineko kopuruak lortzeko iturri gisa erabili genuen.

Bilketa-lanak (errolda-orriak eta zentsu-galdesorta) amaitu ondoren, bereizi egiten dira, eta bi bide jarraitzen dituzte: erroldak udalak berak –edo, behar izanez gero, aldundiek– prozesatzen dituzte. Horietako gehienek berriztapenaren aurreko errolda-fitxategiak eguneratzen dituzte, informazio berria erabiliz; estatistika-galdesortak, berriz, grabatze-fasera pasatzen dira. Eragiketa hori ere eguneratze- edo berrikuspen-ereduari jarraituz egiten zen: fitxategi batzuk osatu ziren –aurregrabatze-fitxategiak direlakoak–, eta bildutako informazioa horietan grabatu zen. Fitxategi horiek aurreroldako fitxategien informazioaren zati batek eta landako fitxategietakoen zati batek (batez ere altek) osatzen zituzten.

Grabatze-lan horretan, egiturazko errorearen ohiko balidatze- eta kontrol-lanak egin genituen (identifikaziokoak, galdesorten eta erregistroen arteko aldeak, orrialde-zenbakien jauziak, etxebizitzaren eta pertsonen bikoiztuak, erantzun negatiboak, etab.). Horretaz gain, berritasun bat ere sartu genuen: literalen zuzenketa ortografikoko fase bat. Horretarako, abiatze-hiztegi batzuk eta zuzenketa metodologia bat eskaini zitzaion enpresa grabatzaileei. Lan hori sartzea erabaki genuen, zeren, 1991ko kodetze automatikoan egiaztatu genuenez, lortutako aldakuntzen ehuneko altu bat okerreko aldaketetatik baitzeterren, aldaketa horiek gaizki idazteagatik edo literal bat bi aldi idazteagatik.

Ondoren, arazte-eragiketak egin genituen (1991n bezala, errore ohikoenen zuzenketa automatikoak eta eskuzkoak egin ziren); literalen kodetze automatikoa egin genuen; biztanleria ofizialarekiko doitzea, eta egozpenak. Jarduerari eta lanbideari buruzko literalak sailkapen zaharrak (LSN-79 eta JESN-47) eta sailkapen berriak (LSN-79 eta JESN-47) erabiliz kodetu genituen, aurreko serieei eutsi ahal izateko, eta sailkapen berrietarako balidazio- edo egiaztapen-tresna bat edukitzearen.

1998ko uztailean, Interneten agertu ziren lehen taulak; urte horretako uztailean, ohiko 6 argitalpenak EXCEL liburuetan argitaratu ziren. Horrekin amaitu zen zabalkundeko lehen fasea.

2.3 Análisis de cobertura. La Encuesta de Validación 1996

Dada la trascendencia, tanto en el ámbito de la administración como en el de la investigación universitaria o privada, que tiene la información derivada de las operaciones demográficas censales, Eustat, desde la Renovación Padronal de 1986, ha venido realizando encuestas de validación de la propia información y de la cobertura de esas operaciones, como por otra parte resulta habitual en los países de nuestro entorno.

Desde una perspectiva de control de calidad y como herramienta adicional de interpretación de resultados, las encuestas de validación de Eustat, tienen por objeto medir la exhaustividad de la operación censal –en qué medida está recogida toda la población que debe estar censada– y la bondad de la respuesta obtenida con relación a las preguntas efectuadas a la población.

Debemos precisar que en 1986 y en 1991, junto a la validación, se realizó simultáneamente una recogida de datos sociodemográficos específica, por lo que las operaciones se denominaron 'Encuesta Demográfica y de Validación'. En 1996, la recogida de información se realizó por separado, por lo que existe una Encuesta de Validación 1996 y una Encuesta Demográfica 1997.

A una muestra de 2.000 viviendas y 5.800 personas se repitió el proceso de recogida de información, pero mediante entrevista realizada por un agente encuestador especialmente preparado para esa tarea. Recordemos que en la recogida de información de las operaciones de carácter censal, en la inmensa mayoría de los casos, se realiza por autocumplimentación. En alguna de las preguntas se añadieron modalidades de respuesta (preguntas relacionadas con el euskera) de cara a poder precisar más finamente las desviaciones de las respuestas.

Posteriormente se cruzan, tanto viviendas como personas, de los ficheros de la Estadística de Población y Viviendas y de la Encuesta de Validación, de forma individual. De la tabulación del fichero de cruce resultante y del tratamiento de sus resultados se desprenden los resultados tanto de la medición de cobertura –diferencia de inscripción entre encuesta y estadística–, como de la validación de respuesta –diferencia de clasificación en las respuestas en ambas operaciones–.

2.3 Estalduraren azterketa. 1996ko Balidazio Inkesta

Zentsu mailako demografi eragiketetatik ateratako informazioak hainbesteko garrantzia du administrazioaren zein ikerketa unibertsitarioan edo pribatuan, ezen Eustat, 1986ko errolda-berriztapenetik, informazioari berari eta eragiketa horien estaldurari buruzko balidazio-inkestak egin dituela; izan ere, gure inguruko herrialdetan ere ohikoa da horrelako inkestak egitea.

Kalitate-kontrolaren ikuspegitik eta emaitzak interpretatzeko tresna gehigarri gisa, Eustaten balidazio-inkestek zentsu-eragiketaren orohartzaitasuna neurtzea dute helburu –zenbateraino dagoen jasota zentsatuta egon behar duen biztanleria osoa–, bai eta lortutako emaitzaren ontasuna ere neurtzea, biztanleriari egindako galderen arabera.

Aipatu behar dugu, 1986an eta 1991n, balidazioarekin batera, datu sozio-demografikoen bilketa berariazko bat egin genuela aldi berean; hori dela eta, eragiketei "Demografi eta Balidazio Inkesta" deitu genien. 1996an, informazio-bilketa bereiz egin genuen; hori dela eta, 1996ko Balidazio Inkesta bat eta 1997ko Demografi Inkesta bat ditugu.

2.000 etxebizitzako eta 5.800 pertsonako lagin bati, berriro egin zitzaion informazio-bilketako prozesua; baina, oraingoan, lan horretarako bereziki prestatutako agente inkestatzaile batek egindako elkarrizketaren bidez. Gogorra dezagun, zentsu mailako eragiketen informazio-bilketan, kasurik gehientsuenetan, inkestatuak betetzen duela inkesta. Galdera batzuetan, erantzun-mota batzuk genituen (euskararekin lotutako galderak), erantzunen desbideratzeak fintasun handiagoz zehaztu ahal izateko.

Ondoren, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikako eta Balidazio Inketako fitxategiak banaka gurutzatu genituen (etxebizitzak zein pertsonak). Gurutzatze-fitxategiak tabulatzetik eta horien emaitzak prozesatzetik, honako emaitzak hauek neurtzea lortu genuen: estaldura-maila –inkestaren eta estatistikaren arteko erroldatze-diferentzia– eta erantzunaren balidazioa -sailkapen-diferentzia bi eragiketen erantzunetan–.

2.3.1	BEE E.P.V.	1996	NU		
ESTALDURA-ERROREEN BALANTZA BEE-96AN BI96-REN ARABERA		BIZTANLERIA BEE96-AN	ESTALDURA-ERROREAK ERRORES DE COBERTURA		
BALANCE DE ERRORES DE COBERTURA EN LA EPV96 SEGÚN LA EV96		POBLACIÓN EN EPV96	Azpizerrrendatzea Subenumeración	Gainzerrrendatzea Superenumeración	Gainzerrrendatze garbia Superenumeración neta
Euskal AE / C.A. de Euskadi		2.098.055	59.575	92.689	33.114
Araba / Álava		281.821	14.490	12.879	-1.611
Bizkaia		1.140.026	29.777	45.148	15.371
Gipuzkoa		676.208	15.308	34.662	19.354

En la tabla 2.3.1 presentamos el balance de los errores de cobertura detectados en el proceso de comparación entre encuesta y estadística. El resultado nos ofrece una superenumeración neta de 33.000 individuos, un 16 por mil, que sobrarían de las cifras aprobadas oficialmente. Esta cifra resulta ser un saldo de dos totales: el de las personas que se debieron empadronar a 1 de mayo de 1996 y no lo hicieron –subenumeración– y el de personas que aparecieron como empadronadas en esa fecha y no deberían haberlo estado.

Tres suelen ser las causas que explican la mayoría de los casos de subenumeración: la negativa de la población a ser empadronada y/o censada, la consideración de una vivienda ocupada como vacía y la omisión de una vivienda en la fase de recogida (por problemas de localización) y captura de la información.

Esta carencia afectó en la estadística de 1996 a casi 60.000 personas, de las que la mitad sabemos que residían en Bizkaia y la otra mitad se reparte casi al 50% en los otros dos territorios. Esto significa que en Álava se produce una subenumeración de forma más acentuada que en el resto de territorios –su peso en el conjunto de la Comunidad Autónoma ronda el 13%, mientras que agrupa el 24% de la población sin empadronar–, mientras que en Gipuzkoa sucede lo contrario –con el 32% de la población, sólo alcanza el 26% del total de los no empadronados–.

La superenumeración censal o padronal viene explicada por la permanencia en los ficheros de partida (recordemos que se preimprimieron los padrones en las hojas padronales y en los cuestionarios estadísticos) de personas que deberían estar de baja por movilidad natural o espacial, por estar repetidos (duplicados, triplicados), o por ser población no sujeta a empadronamiento: los llamados transeúntes, nacidos con posterioridad al 1 de mayo o las defunciones anteriores a esa fecha. El agente encuestador, mediante la visita a las viviendas de la muestra acaba detectando viviendas vacías donde el padrón había determinado que residían personas, o empadronados que según las condiciones de recogida no deberían serlo.

En esa situación se encontraron casi 93.000 efectivos, repartiéndose casi de manera alícuota por territorios; como en el caso de la subenumeración Bizkaia presenta los resultados relativos más positivos: el 49% de la superenumeración –con el 54% de la población–, mientras que Gipuzkoa agrupa el 37% de aquella carencia –y el 32% de los habitantes de la Comunidad Autónoma de Euskadi–.

El balance de errores de cobertura por territorio nos presenta una superenumeración neta negativa del 6 por mil en Álava (subenumeración neta positiva), de un 13,5 por mil en Bizkaia y de un 28,6 por mil en Gipuzkoa.

2.3.1 taulan, inkestaren eta estatistikaren arteko erkatze-prozesuan antzemandako estaldura-erroreen emaitza aurkezten dizuegu. Emaitzak 33.000 pertsonako gainzerrendatze garbia eskaintzen digu, hau da, milako 16 soberan leudeke ofizialki onartutako zenbakietan. Zenbaki hori bi guztizkoren saldoa da: 1996ko maiatzaren 1ean erroldatuta egon behar zutenen eta erroldatuta ez zeudenen saldoa (azpizerrendatzea), eta data horretan erroldatuta agertu zirenen eta erroldatuta egon behar ez zutenen saldoa.

Azpizerrendatze-kasu gehienak hiru arrazoik azaldu ohi dituzte: biztanleak erroldatuta edo zentsatuta izateri uko egitea; etxebizitza okupatu bat hutsik dagoela kontsideratzea, eta informazioa biltzeko eta atzemateko fasean etxebizitza bat ez sartzea (aurkitzeko arazoengatik).

1996ko estatistikan, ia 60.000 pertsona erasan zituen akats horrek; horietatik, badakigu erdiak Bizkaian bizi zirela, eta beste erdiak ia erdibana banatzen dira beste bi lurraldeetan. Horrek esan nahi du azpizerrendatzea are nabarmenagoa dela Araban, ezen ez beste lurraldeetan –Arabak autonomia-erkidegoan duen pisua %13 ingurukoa da; baina erroldatu gabeko biztanleriaren %24 biltzen du–; Gipuzkoan, kontrako gertatzen da –biztanleriaren %32 dauka, eta erroldatu gabeen guztizkoaren %26ra baino ez da iristen–.

Zentsu edo erroldako gainerrolatzea azaltzeko, kontuan izan behar da agertu behar ez zuten pertsonak agertzen direla abiatze-fitxategietan (gogora dezagun erroldak errolda-orrietan eta estatistikaren galdesortetan aurreinprimatu genituela). Izan ere, pertsona horiek ez lukete agertu behar, mugimendu natural edo espazialagatik, errepikatuta egoteagatik (bikoiztuak, hirukoiztuak) edo erroldatu beharrik ez duten biztanleak izateagatik (iragaitzakakoak dirrelakoak), maiatzaren 1aren ondoren jaiotzea-gatik, edo data horren aurretik hiltzeagatik. Agente inkestatzaileak, lagineko etxebizitzetara egiten dituen bisiten bidez, etxebizitza hutsak aurkitzen ditu (eroldaren arabera norbait bizi da bertan), bai eta gaizki erroldatuak ere (bilketa-balditzen arabera ez lukete erroldatuta egon behar).

Egoera horretan, ia 93.000 biztanle zeuden, eta ia hainbana banatzen dira lurraldeen artean. Azpizerrendatzearekin gertatzen den bezala, Bizkaia duen emaitza erlatibo positiboena: gainzerrendatzearen %49 –biztanleriaren %54rekin–; Gipuzkoak, berriz, akats horren %37 biltzen du –eta Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen %32–.

Estaldura-erroreak lurraldeka banatzen baditugu, ikusiko dugu gainzerrendatze garbi negatiboa milako 6koa dela Araban (azpizerrendatze garbi positiboa); milako 13,5koa Bizkaian, eta milako 28,6koa Gipuzkoan.

Si comparamos con los datos obtenidos en el análisis de cobertura correspondiente al Censo de Población y Viviendas 1991, ésta ha empeorado significativamente, especialmente en relación a la superenumeración. En aquella operación y en lo relativo a los tres territorios de nuestra Comunidad, se detectó una subenumeración de 43.000 personas –lo que supone un aumento del 39% con respecto a la de 1996–. Los efectivos contados indebidamente de más en 1991 fueron 54.000, resultando un 72% de incremento comparando con la cifra obtenida en la estadística de 1996.

Resumiendo, la superenumeración neta alcanzó a un 5,6 por mil en 1991, multiplicándose por tres en 1996. En 1986 esa cifra se movió en torno al 4,1 por mil.

En líneas generales, la subestimación ha estado ligada a la asociación real o imaginada de la inscripción a la fijación de cargas impositivas, ya sea de forma individual o colectiva. Los censos españoles del XVIII y XIX adolecían todos de este defecto, (véase las Advertencias y Presentaciones de los Censos Históricos y del Diccionario Geográfico y Estadístico de 1845). Por otro lado a los recursos personales y económicos de que dispone una oficina estadística para llevar a cabo operaciones de recogida masiva, por lo que se puede asociar al grado de desarrollo de un país. Así, por ejemplo, tenemos el método, cuanto menos curioso, de validar la información sobre efectivos poblacionales en algunas zonas de China a través de fotos de satélite nocturnas.

Los censos españoles de 1970 y de 1981, en los que se midió la cobertura, dieron una subenumeración neta del 23 por mil y del 13 por mil respectivamente. La operación de 1991 ofrece un saldo positivo del 1,2 por mil.

El balance de errores en la Comunidad Autónoma de Euskadi en 1996, a pesar de haber supuesto un empeoramiento con respecto a las dos operaciones anteriores, no resulta muy distanciado del obtenido en censos como el norteamericano de 1990 en el que se utilizaron dos procedimientos; medida por análisis demográfico la superenumeración alcanzó un 18 por mil, y por encuesta de cobertura un 21 por mil.

El de Australia de 1986, también según los dos procedimientos, se movió entre el 9 por mil del primero y el 18 por mil del segundo. El censo francés de 1990 se mueve entre el 8 y el 15 por mil de superenumeración.

Las razones tradicionales para la sobreenumeración, igual que en el pasado, resultan de índole personal: se dan intereses particulares para que determinados ciudadanos multipliquen conscientemente los empadronamientos. Tenemos ejemplos en las desgravaciones fiscales de vivienda, en la consecución de tarjetas de aparcamiento, de plazas escolares, de médicos o especialistas determinados, etc..O, por otro lado, de índole institucional, financiera y/o política: los ayuntamientos en función de sus cifras de población tienen derecho a ser-

1991ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikari dagokion estaldura-azterketan lortutako emaitzekin erkatzen badugu, esan beharko dugu ezen estaldura hori nabarmen okertu dela, batez ere gainzerrendatzeari dagokionez. Eragiketa hartan, eta gure erkidegoko hiru lurraldeei dagokionez, behar ez bezala zenbatutako 43.000 biztanleren gainzerrendatzea antzeman zen –horrek %39ko igoera suposatzen du, 1996koaren aldean–. 1991n, behar ez bezala zenbatutako biztanleak 54.000 izan ziren; ondorioz, gehikuntza %72koa izan da, 1996ko estatistikan lortutako kopuruaren aldean.

Laburbilduz, gainzerrendatze garbia milako 5,6koa izan zen 1991n, eta 1996an, hirugatik biderkatu da. 1986an, kopuru hori milako 4,1 ingurukoa izan zen.

Oro har, azpizenbatespena erroldatzea zerga-kargak ezartzearekin (benetan edo ustez) elkartuta egoteari lotuta egon da, bai banaka, bai taldeka. XVIII. eta XIX. mendeetako zentsu espainiarrek akats hori zuten (ikus zentsu historikoetako eta 1845eko Diccionario Geográfico y Estadístico-ko oharrak eta aurkezpenak). Bestalde, estatistika-bulego batek bilketa masiboko eragiketak burutzeko dituen pertsonal- eta ekonomia-baliabideei ere lotuta dago akats hori; hori dela eta, herri baten garapen-mailarekin ere lotu daiteke. Txinako eskualde batzuetan, adibidez, biztanle-kopuruei buruzko informazioa balidatzeko metodo nahiko bitxia dute: gauez satelite bidezko argazkiak ateratzea.

1970ko eta 1981eko zentsu espainiarretan, estaldura neurtu zen: hurrenez hurren, milako 23ko eta milako 13ko azpizerrendatze garbia eman zuten. 1991ko eragiketak milako 1,2ko saldo positiboa eskaini du.

1996an, Euskal Autonomia Erkidegoan lortu den errore-emaitza, ez dago oso urrun beste zentsu batzuetan lortutakotik; emaitza hori, dena dela, okertu egin da, aurreko bi eragiketen aldean. 1990eko Estatu Batuetako zentsuan, adibidez, bi prozedura erabili ziren: demografi analisiaren bidez neurtuta, gainzerrendatzea milako 18koa izan zen, eta estaldura-inkestaren bidez neurtua, berriz, milako 21ekoa.

1986ko Australiako zentsuan –hura ere bi prozeduren bidez–, lehenaren milako 9aren eta bigarrenaren milako 18ren artean mugitu zen. 1990eko Frantziako zentsua gainzerrendatzearen milako 8ren eta 15en artean mugitu zen.

Gainzerrendatzearen ohiko arrazoiak, aitzinean bezala, maila pertsonalekoak izaten dira: interes bereziak egoten dira, herritar batzuek erroldatzeak nahita ugaritzeko. Hona hemen adibide batzuk: etxebizitzaren zergak arintzeko, aparkatzeko txartelak, eskola-plazak, mediku-plazak edo espezialista jakin batzuen plazak, etab. lortzeko. Edo, beste alde batetik, erakunde-, finantza- eta politika mailakoak: udalek, duten biztanle-kopuruaren arabera, ospitaleak, ikastetxeak, farmaziak, etab. edukitzeko eskubidea dute; balizko arrazoi politikoaren artean, zinegotzi-

vicios como hospitales, centros escolares, farmacias, etc.; el número de concejales o la participación en la representación provincial aparecen como posibles motivaciones políticas, mientras que el acceso a subvenciones o programas con carga financiera, ya sean estatales o de la Unión Europea, pueden pesar en la introducción de sesgos en las cifras poblacionales de carácter oficial.

2.4 Validación de las principales características

Las tablas que recogen los datos de la validación, resultado de la tabulación de los ficheros donde se cruzan los registros de la encuesta y de la estadística, además de los errores de cobertura por cada estado de cada característica investigada y para su total, presentan, por un lado los porcentajes de población o viviendas que en ambos casos toman los mismos valores en cada característica, y por otro, los errores de contenido. Estos agrupan al porcentaje de respuesta no coincidente, según el sesgo (porcentual) producido en la estadística; de esta manera, además de evaluar la calidad de respuesta, se podría corregir la información en función de la dirección del sesgo detectado, es decir, aplicando el porcentaje de respuesta que en un estado de una característica sobra o falta.

Con el fin de realizar una primera aproximación a la calidad de respuesta en la Estadística de Población y Viviendas 1996, sobre la base de la Encuesta de Validación, presentaremos dos gráficos en donde aparecen los porcentajes de respuestas igualmente clasificadas en ambas operaciones, para las principales variables.

Con relación a anteriores operaciones de validación, hubo dos modificaciones sensibles que en alguna medida han influido en los resultados: la disminución de la muestra, de 15.000 viviendas se ha pasado a 2.000, y la fecha de realización de la recogida de información de la encuesta, que debido a problemas presupuestarios se tuvo que retrasar cinco meses.

Resulta preciso comentar que cuando el porcentaje de coincidencias ronda el 80% se puede considerar que la calidad de respuesta es buena.

Si comenzamos por las variables de vivienda, podemos apreciar que con relación a la calidad de respuesta existen dos grupos claros: el de las cuestiones relativas a servicios e instalaciones, y el de las relativas a características estructurales de las viviendas.

En el primer caso el porcentaje de respuestas coincidentes se sitúa entre el 80 y el 90%, por lo que se puede evaluar como información muy fiable, manteniendo una continuidad con la validación de 1991.

-kopurua eta probintziako ordezkarietan duten parte-hartzea agertzen dira; diru-laguntzak edo finantza-karga duten programak lortzeko (Estatutik edo Europako Batasunetik) ere okerreko aldeak sartzen dira biztanle-kopuru ofizialetan.

2.4 Ezaugarri nagusien balidazioa

Balidazioaren datuak biltzen dituzten taulak inkestaren eta estatistikaren erregistroak gurutzatzen diren fitxategiak tabulatzearen emaitza dira. Datu horietan, ikertutako ezaugarri bakoitzari buruzko egoera bakoitzari eta horien guztizkoari buruzko estaldura-erroreez gain, honako hauek agertzen dira: alde batetik, bi kasuetan zenbat biztanlek edo etxebizitzak hartzen dituen balio berdinak horietako ezaugarri bakoitzean, eta bestetik, edukian nolako erroreak dauden. Horiek bat ez datozen erantzunen ehunekoak biltzen dituzte, estatistikan nolako okerreko alde dagoen (ehunekotan). Horrela, erantzunaren kalitatea balioesteaz gain, antzemandako okerreko aldearen noran-tzaren arabera zuzen liteke informazioa, hau da, ezaugarri bateko egoera batean zenbat erantzun gehiegi edo gutxiegi dauden aplikatuz.

1996ko Biztanleriaren eta Etxebizitzako erantzunen kalitatera hurbilarazteko (Balidazio Inkestan oinarrituz), bi grafiko aurkeztuko ditugu. Grafiko horietan, bi eragiketetan berdin sailkatutako erantzunen ehunekoak agertzen dira, eta aldagai nagusiei buruzkoak dira.

Aurreko balidazio-eragiketei dagokienez, bi aldaketa nabarmen egon dira, eta nolabaiteko eragina izan dute emaitzetan: lagina txikiagotu genuen (15.000 etxebizitzatik 2.000ra jaitsi dugu), eta informazio-bilketa egiteko data aldatu genuen (aurrekontu-arazoak zirela eta, bost hilabete atzeratu behar izan genuen).

Aipatu behar dugu ezen, bat etortzeen ehunekoak %80 ingurukoa direnean, erantzunaren kalitatea ontzat kontsidera daitekeela.


Etxebizitzari buruzko aldagaietatik hasten bagara, ikus dezakegu, erantzunaren kalitateari dagokionez, bi talde nabarmen daudela: zerbitzu eta instalazioei buruzko galderena, eta etxebizitzaren egiturazko ezaugarriei buruzkoena.

Lehen kasuan, bat datozen erantzunen ehunekoak %80 eta 90 artean daude; hori dela eta, informazioa oso fidagarritzat kontsidera dezakegu, eta jarraipena ematen dio 1991ko balidazioari.

Evolución de la calidad de respuesta 1991-1996.
 Porcentaje de respuestas igual clasificadas en la
 EV96 y en la EPV96.
 Datos de vivienda. (%)

Erantzunaren kalitatearen bilakaera 1991-1996.
 BI96an eta BEE96an berdin sailkatutako
 erantzunen ehunekoak.
 Etxebizitzen datuak. (%)

Gráfico 2.4.1 Grafikoa



El tipo de vivienda, –si es una vivienda principal, secundaria o vacía– alcanza el 93%, aunque en 1991 llegaba al 99%; con pocas dudas se puede afirmar que una parte importante de esta diferencia procede del intervalo de tiempo transcurrido entre ambas operaciones de recogida y en el efecto de la consiguiente movilidad de la población.

La calidad de las preguntas que recogen las variables estructurales de la vivienda fluctúa entre el 70% de la superficie, hasta el 64% del año de construcción y el 56% del número de habitaciones. Además del retraso citado, existen otra serie de razones que explican el porcentaje tan alto de respuesta no coincidente en estas variables; en el caso de la superficie y del número de habitaciones el hecho de formular de forma ligeramente diferente las preguntas y, más todavía, la precisión de las condiciones en que se debe contabilizar una habitación o la propia superficie útil (a veces poco visibles en los cuestionarios censales), explican en gran medida esta respuesta diferente. El mismo concepto de habitación suele ser mal interpretado desde el punto de vista censal, al asociarlo al de dormitorio. El año de construcción no adolece de las anteriores posibilidades, pero resulta evidente que es una información difícil de recordar con exactitud. De hecho resulta ser una de las variables que más sufren procesos de depuración e imputación en los censos; así, no se admite que dentro de un mismo edificio se den años de construcción diferentes, por lo que se calcula la moda del año para el edificio y se copia a todas las viviendas.

Etxebizitza-mota (ea etxebizitza nagusia, bigarrena edo hutsa den) %93ra iristen da; 1991n, berriz, %99ra iristen zen; zalantza-izpirik gabe esan daiteke ezen diferentzia horren zati handi bat bi bilketa-eragiketen artean igarotako denboralditik datorrela, eta horrek biztanleriaren mugimenduan duen eraginetik.

Etxebizitzen egiturazko baliabideak biltzen dituzten galderen kalitatea %70en (azalera), %64ren (eraikuntza-urtea) eta %56ren (gela-kopurua) artean daude. Aipatutako atzerapenaz gain, badaude beste arrazoi batzuk ere, aldagai horietan bat ez datozen erantzunen ehuneko altuak azaltzen dituztenak; azaleraren eta gela-kopuruaren kasuan, galderak egiteko modua zertxobait aldatu zen, eta, are gehiago, gela bat edo azalera erabilgarria bera zenbatu beharreko baldintzen zehaztasuna ere (batzuetan ez dira ongi ikusten zentsuko galdesortetan). Horrek guztiak azaltzen du neurri handi batean erantzun desberdin hori. Gelari buruzko kontzeptua bera ere gaizki ulertu ohi da zentsuaren ikuspegitik, logelarekin lotzen baita. Eraikuntza-urteak ez ditu aurrekoen bezalako okertze-aukerak, baina argi dago zaila izaten dela informazio hori gogoratzea. Izatez, aldagai horixe da zentsuetan arazpen- eta egozpen-prozesu gehien jasaten dituenetakoa; izan ere, eraikin baten beraren barruan, ez da onartzen eraikuntza-urte desberdinak ematea; hori dela eta, urtearen moda kalkulatzen da eraikinari buruz, eta etxebizitza guztietara kopiatzen da.

El índice de confort, variable que pretende medir las condiciones de confortabilidad de las viviendas resumiendo su información básica, alcanza un 82% de respuesta coincidente, a pesar del peso que en su construcción tienen las variables estructurales (sobre todo añode construcción, superficie y número de habitaciones); la explicación de esa buena calidad viene dada por que si los estados de las variables estructurales se agregan, el error de respuesta disminuye sustancialmente. De otra forma, cuando alguien se equivoca en el número de habitaciones lo hace por una unidad o dos, y en el año de construcción (para las viviendas de los últimos 50 ó 60 años) quizás por alguna unidad más pero resulta menos probable el error en el decenio.

Diremos, para acabar con la información de vivienda, que la validación está realizada para el conjunto de las viviendas, independientemente de su tipo. Para las viviendas vacías siempre se suele recoger menos y peor información que para las ocupadas, con lo que sabemos que la calidad de respuesta sube con relación a estas últimas.

Dentro de las variables que recogen la información de la población, podemos hacer cuatro grupos por tipo de datos: demográficas y de familia, euskera y estudios, actividad de la población y migraciones.

En el primer apartado, y según se puede ver en el gráfico 2.4.2, prácticamente todas las características se aproximan o superan el 90% de coincidencia, produciendo unos resultados no muy diferentes a los obtenidos en 1991.

